HAMABOSKARIA - 2005eko urtarrilaren 21a - X. urtea - Usurbil, 197. zenbakia

# N u !

www.noaua.com



Egun erdira murriztu da KzGuneko zerbitzua



## Trafikoan aldaketak eragingo ditu

# San Inazioko errotondak




herrikoa, atsegina,
hunkigarria, ezinbestekoa
Usurbilgo Baserriak
eta Baserritarrak
ESKURA EZAZU!
Lizardi liburudenda
Zumeta jatetxea
Alamandegi jatetxea
Noaua Kultur Elkartea
PREZIOA: 33 EURO (BAZKIDEEK NOAUA! KULTUR ELKARTEAN 25 EUROTAN)


LAUKOTE
okindegia - kafetegia
Puntapax kalea, 16 - behea (Artzabal)
Telefonoa: 943 36 09 80
urtebetetzeko meriendak
enkargu bidezko tartak
SU-EGURREKO OGIA
OPILAK
Astelehenetik larunbatera:
6.00tatik 20.00tara (eguerdian irekita)
Igandeak:
6.00tatik 13.30tara

# Txirrikitutik !

1955. urteko argazki honetan agertzen den baserria XVI. mendean eraiki zen Aginagako Etxebeste baserria duzue. Dagoeneko nahiko ezaguna izango zaizue, izan ere 2005eko Noaua!ko egutegian eta "Usurbilgo baserriak eta baserritarrak" liburuan ageri baita. Baserriaren aurrean bertako baserritarra idi parearekin ageri da eta honen atzean bere sendia. Argazkiaren ezkerraldean orduko N-634 errepide nagusia ikusi dezakegu eta eskuinaldean berriz, lau meta erraldoi. Zer, ez al da argazki polita?

**Zaloa Arnaiz Ibarguren**



Egilea: Ezezaguna, 1955. urtea

Etxebeste baserria, Aginaga
Jabea: Kutxa Fototeka

## Noaua!

**Argitaratzailea**: NOAUA! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com
www.noaua.com

**Koordinatzailea:** Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

**Publizitatea:** publizitatea@noaua.com

**Kolaboratzaileak:** Lontxo Zubiria, Oxkar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbieta, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapasak: LUMA, O.E.

**Idazkaria:** Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

**Bazkidetza:** Aitziber Aranberri.

**Erredakzio Kontseilua:** Imanol Ubeda, Zaloa Arnaiz, Maialen Saez, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

**Informatika**: Topaguneko informatika zerbitzua.

**Banaketa**: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

**Elektrikaria:** Iñaki Salsamendi.

**Tirada:** 2.600 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96 - **ISSN:** 1136-6818
**Inprimategia:** Antza.

NOAUA! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

***NOAUA!* Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:**
**10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan**

**AZALA**
**Errotondak eragin zuzena izan du trafikoan.**

# Aurkibidea

ZUTABEAN, NEREA ZINKUNEGI — 4. ORR.

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN — 6. ORR.

NORABIDE ALDAKETAK TRAFIKOAN — 10. ORR.

KZGUNEA EGUN ERDIRA MURRIZTU DA — 12. ORR.

2003ko maiatzean zabaldu zen KzGunearen zerbitzua. Orain arte egun osoz zabalik izan den arren, aurrerantzean, egun erdira murriztuko da zerbitzua.



TAPA ETA AURKIBIDEA ESKURA — 14. ORR.

ASPALDIKO DESAFIO SONATUENA AIAN — 16. ORR.

ZER MODUZ AUTORIK GABE? — 18. ORR.

AGENDAKO EKITALDI AIPAGARRIENAK — 22. ORR.

Usurbilgo Udala

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak
Euskal Herrira!

## Zutabea !



NEREA ZINKUNEGI

# Usurbilgo Poligonoak eta Poligonotarrak

Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak liburua daukat esku artean eta ezer esaten hasi aurretik zorionak eta eskerrak eman behar dizkizuet liburu hau osatzen aritu zareten guztioi. *Earra* dokumentua, nazio marabilloso hau osatzen dugun udalerri guztiek plajiatzeko modukoa.

Liburu gainean hautsontzia, metxeroa eta hitz hauek zikintzen duten kuaderno zuria, mesanotxe funtzioa ere bete dezake liburuak. Bi kilo eta erdi pasatxo pisatzen dituen liburutzar hau ikusten dudan aldi oro sentsazio arraro batek kutsatzen nau zeharo, izan ere, ikusi orduko, liburuak irekitzeko gonbitea egiten dit lotsagabe, eta lotsik gabe destinuak hautatutako tokian irekitzen det liburua.

Nere familiakorik ez da ageri argazkietan, ezta ageriko ere. Usurbildarra naiz izatez, gurasoak ordea, kanpotik etorriak, baserritarrak, baina ez usurbildarrak. Zenbait urtetan (haurtzaroan batik bat) harreman estua izan dut baserriko bizitzarekin. Baina kalekumea naiz, "kuarentaidoskua". Usurbilgo herria poligonotan banatuta zegoen garaikoa naiz, *poligono kuarentaidos, poligono treze…*

Ez dugu inoiz Zumitzakorik izan aldamenean bizilagun, ezta Andrenagusikorik ere, gerora ezagutu ditugun arren, urteen poderioz. Gure "bezinuak" José eta Dolores izan dira, Andrés eta Conso. Extremadurakoak, Cordobakoak, Burgoskoak…

Egoera eta garai konkretu batek elkartu gintuen auzoan, etorkinen auzoan, herrian, industrializazioak hain zuzen ere; Luzuriaga, Michelin, Ingemar… eta egoera berezi batean bizi izan gara urteetan zehar.

Gurasoak baserritarrak eta euskaldun peto-petoak izan arren, gaztelera txukunean aritzen ginen txiki-txikitatik, hala beharrez noski. Udan hutsik geratzen zen gure auzoa, gure familia eta bizpahiru gehiago izan ezik denak "al pueblo"ra joaten baitziren oporretara. Gure etxeetako ateak zabal-zabalik egoten ziren uda guztian zehar eta negu partean aldameneko Badajozko Doloresek migak egiten zituenean bere etxera gonbidatzen gintuen ahizpa eta biok.

Belaunaldi xelebre samarrekoak gara dudarik gabe, usurbildarrak izan eta etorkinen auzoetan hazi eta hezi garenok, agian guk ere merezi dugu liburuska bat.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - **Nerea Zinkunegi** - Idoia Torregarai

## Ika-mika !

# Lotsagarria!!

Luis Mari Ormaetxea alkateak idatzi bat argitaratu zuen aurrekoan. Joxe Antonio Altunak, 16 urtean alkate izan denak bestea. Alkateak orain dela bi aste Usurbilgo Ventanas San Miguel enpresak jasandako atentatuari buruz hitzegiten du. Nola bertaratu zen, nagusia nola zegoen, txikitutako atea nola zegoen.

Beste idatzian Altunak Ormaetxeari egiten dio eraso. Aurreko aldizkarian Ormaetxeak beste idatzi batean berari egindako kritikei erantzunez. Gaia, Ugarte eta Ugartondoko jabeek udalarekin sinatutako konbenioa. Ondorioz bertako industrialdea eta etxea bota eta etxe ugari egingo dira.

Alkateak kritika zorrotzak egin zizkion Altunari, UHL-k udalari leporatutakoak zirela eta. Irakurri dut behin eta berriro alkatearen idatzi hori eta errespetuz eta kritika politikoa oinarri hartuta idatzia dago. Altunaren erantzuna ez da makala ordea. Argumentu gutxi erabiltzen du. Deskalifikazio izugarriak egiten ditu. Gogorrena hauxe: "Aldi honetan egoera eta bizipen gogorrak eramatea tokatu zaiguk familiakooi. Uste diat bake-pakean uzteko eskubidea ere badugula. Baina hik ez daukak gizatasunaren arrastorik".

Hau ezin dut onartu. Ni enpresagizon bat naiz. Mehatxuak jaso izan ditut. Horregatik, mehatxu hauek jaso dituzunean eta hainbeste urtean alkate izan denak ez duenean inoiz mehatxatutakoekiko laguntasunik eduki. Herriko ertzain bati kotxea erre ziotenean ez zuenean plenorik deitu. "El Diario Vasco"-ko kronista mehatxatu zutenean ez zuenean ezer esan. Laburbilduz ETA-ren eta ingurukoen mehatxuak jaso ditugunoi ez digunean elkartasunik adierazi, gogorra da egungo alkateari gizatasunik ez duela leporatzea. Noiz eta alkateak aste horretan bertan atentatua jasan duen enpresariari babesa eman dionean.

Altuna jauna, ez duzu lotsaren arrastorik! Zer pentsatu behar dugu zuk babestu egiten zenituela ekintza hauek? Laguntza ematen zeniela?

Bukatzeko, idatzi horretan zure familiaren egoerari erreparatzen diozu? Denboraldi txarra pasa duzulako ezin zaizu kritikarik egin ala? Gainera zuk esan bezala UHL-ko izaten jarraitzen duzunean. Lotsagarria benetan!! Ze ikusi du egoera pertsonalak kritika politikoarekin. Zer da zure egoera, eskudoa kritikarik ez izateko? Inmunitatea nahi al duzu? Eta? Galdetu al duzu inoiz mehatxuak jasan ditugunon famili egoera nolakoa zen eta nolako den? Lotsarik ez duzu.

**Pedro Antonio Sanchez, enpresaria**

**IKA MIKA** ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, **NOAUA!**k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.
**NOAUA!**k ez du bere gain hartzen **IKA MIKA** atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.
**Hurrengo alea**: Otsailak 4. Idatzia ekartzeko **azken eguna:** Urtarrilak 28.

# Neguko ospakizunak, aurten, denak segidan

**Harritzekoa bada ere, aurten Santa Ageda eta Inauteriak batera ospatuko dira. Egutegiaren kapritxoak omen. Otsailaren 4an, beraz, Udarregi Ikastolakoek bi ospakizun izango dituzte egun berean: Santa Ageda eta Inauteriak. Hamabost egun lehenago, ordea, San Sebastian eguneko jantziz mozorrotu beharko dute. Tira, dena segidan izan arren, hartutako lanak ez dira oharkabean pasako eguraldiak laguntzen badu.**

### Hasteko, danbor festa

Hilaren 20an, ohi bezala, Haur Hezkuntzakoek Agerialdeko pilotalekuan danborrada eskainiko dute, 15:30etan. Lehen Hezkuntzakoek, 15:45ean Udarregiko "zezen plazan" gauza bera egingo dute. Lerrook irakurtzerakoan, akaso pasa da San Sebastian eguna. Dena den, polita izaten da ikasleek eskaintzen duten ikuskizuna.

### Santa Ageda eta Inauteriak, egun berean

Aurten, estrainekoz, Santa Ageda eta Inauteriak egun berean suertatu dira, otsailaren 4an, hain zuzen. Beraz, ospakizun bakarra izango da. Era honetara: ostiralean, otsailak 4, goizeko 10:00etatik 11:30etara ikasleek kalez kale herria girotuko dute, batera dantzatuz. Hiru talde egingo dituzte (Lehen Hezkuntzakoak bi talde eta hirugarrena DBHkoak) eta hiru ibilbide ezberdinetik zehar arituko dira.

- 10:30etatik 11:30etara Haur Hezkuntzakoek Santa Ageda bezperako ohiturari eutsiko diote.
- 11:30etatik 12:30etara, denok, saio komuna eskainiko dute kiroldegian.





URTARRILAK 20 SAN SEBASTIAN EGUNA, OTSAILAK 4 SANTA AGEDA ETA INAUTERIAK...

Ika-mika!

# Ate kolpeak esnatu zuen

Goizeko 3ak. Ate golpe bortitzak, ez da Udaltzaingoa. "Somos la Ertzantza! Abran o echa…" eztanda batek etxeko atea lehertu du. Aurpegia estalitako hamabost mertzenario armak eskuan, iraina eta mehatxua ezpainetan, etxe barnean sendi osoa bahitu dute. Aitamak gela batean erdi bilutsik, izua aurpegian; sukalde zoluan botata semearen gorpua garrondoan fusilaren kanoiak mehatxatzen diola; ondoko gelan alaba mertzenarioen irain eta lizunkeriak jasanez. Terrorea zabaldu da etxeko zoko guztietan.

Bizilaguna bildurpean, ate zirrikitutik begira. Horrelakoetan terrorismo delitua baita auzokideari elkartasun xumeena adieraztea. Orduak aurrera egin ala tentsioa haunditzen doa gerora etorriko diren egun latzgarrien seinale. Etxea hankaz gora uztearekin kriminal egarria ase ezin eta, objetu pertsonal kuttunenak txikitu dituzte, sentimenduen habia zulatu nahian.

Goizeko 7ak. Lau orduko araketaren ondotik, barnean egindako sarraskia ikusi ez dadin etxea prezintatu dute, famili artekoak bahiturik eraman dituzte bitartean. Nora eta noiz arte inork ez dakielarik.

Beldurra ez da librea. Beldurra okupatzeileak armaz eta bortxaz inposatu ziguten. Beldurra egunero uniformez eta aurpegia estalita paseatzen da herriko kaleetan. Beldurra txertatzen da herriko instituziotan alkiak lapurtuz, herritarren hitza bahituz…

Bitartean, kaleko orma zaharrean, orain hogeitabost urteko aztarnak dirau. "Estatutoarekin presoak etxera", "Estatutoarekin Nafarroa…" eta estatutoak damuketa legea ekarri zuen. Estatutoak sakabanaketa ekarri zuen, Estatutoak presoen eta senitartekoen erahilketa ekarri zuen.

Hemendik hilabete gutxira, herritarrek sobreak jasoko dituzte botoa eskatzen. Badakizu, laurterokoa, "Hitz batekin Euskal Herria altxatuko duen"; Esan Bai! I. Planari… Eta beste horrenbeste urtez lotuko zaitugu Espainiari (libre adesion, noski).

Pentsakor nago, Espainiari lotuta bizitzea beste aukerarik uzte ez duen Plan batek (konstituzio espainolak dion gauza ber-bera) zerikusirik ote duen bakearekin. Bakearen aldeko urratsak ote dira, antolakundeak ilegalizatu, sedeak itxi, diru kontuak ebatsi, herriaren gehiengoak presoen alde onartutako erabakiak ezabatu eta herritarrei zegozkien kargu hartzea galerazteko, herritik kanpora joan karguaz jabetzea. Historian lehen aldiz gertatu da alkate deritzon batek, bere herritarren aurrean ez duela kargurik hartu, hauenganako mespretxurik handiena adieraziz.

Luismari Ormaetxe bezelakoek nola arrazonatuko dituzte jarrera hauek? Edo, ohi duen bezala erantzungo digu; "Puntu hori ez dago gaiordenean…" Zuen hitzak dira, Presoen eskubideen alde zaudetela, Autodeterminazioaren alde, herriaren hitzaren alde… baina zuen errealitate politikoak hitzak jaten ditu.

Utikan! Luis Mari. Etika irakaspenak emateko nor ez haizela diok, eta moralismo hipokritaz hornitutako diskurtsoa dakarkiguk.

Itxaropen garaietan bizi duk Euskal Herria. Baina beldur nauk zuen hautuak beste hogeitabost urtetarako terrorismo autonomikora ez ote gaituen eramango.

Usurbilen, aspaldian hartu zian aurrea beldurrak etxe askotan, antolakunde askotan eta herritar askorengan. Eta hi, ez ago beldur hori, mahatxu hori eta injustizia hori jasaten dutenen ondoan. Hik, beldur, mehatxu eta injustizia horietara kondenatu dituk herrian botoen gehiengoa bildu zuten herritarrak.

Por zierto! Kargua eskuratu ukenean hire eskutitza jaso nian; "Prest naukazu ni eta nere taldea beharrezko duzun laguntza emateko…" Orduan zera erantzun nian; "Ni kolektibo bateko partaide nauk eta ez diat deus eskatzen maila pertsonalean. Nahi baduk, aukera ederra daukak Euskal Preso Politikoen kolektiboen aldeko eskubideak defendatzeko".

Ohiane Errazkin burkidea kartzelak erahil zuenean non hintzen? Karmele Solaguren sakabanaketak erahil duenean non hintzen?

Orain hogei bat urte inguru, hire alderdikide den Azkarragarengandik jaso nuen proposamen bakarra Damutzearena izan zuan.

Duintasuna ez duk zuen baratzean eraiten den hazia.

**Joxe Domingo Aizpurua**



Txokoalde

IMANOL GOENAGA

# Urte berrian aurrera

Kaixo auzotar agurgarri horiek eta urte berri on guztioi! 2004a joana da dagoeneko eta ondoren 2005a etorria. Aurten ere, azken urte hauetan bezala, iskanbila handiz hasi dugu urtea; nonnahi entzuten eta ikusten baitziren, petardo eta su artifizialen danbateko eta dizdirak.

Erregeak ere pasa ziren eta heldu zaigu berriz lanean hasteko garaia, geure auzoko istoriotxoak kontatuz, NOAUA!ko artikulotxo hau eginaz.

Lehengo urtean ere kexatzen ginen eta aurten ere horrela jarraitu beharko dugu. Zumeta aurreko zuloa tapatzen ez duten bitartean. Lehen ere, behin baino gehiagotan txukundua dute baina berriz ere zuloak agerian geratzen hasiak dira. Hori ere inoiz bukatzen ez den lan horietakoren bat izango da. Kexekin jarraituz, behin edo behin esan dugun bezala, auzoan, “pilak” erreziklatzeko kontainerra falta zaigula esan behar dut. Hori ere noizbait jarriko dute.

Bestalde, ibaian gauero-gauero hortxen ibiltzen dira anguleroak beren gai preziatua ateratzeko asmotan, ea Donostia eguna baino lehen zerbait ateratzen duten, azken prezio igoerak aprobetxatzeko.

Akerra Gaztetxekoak ere hasia dute aurtengo denboraldia eta dagoeneko urtarrilaren 15ean egina dute lehen kontzertua. Bertan “La navaja de Oran” taldea izan genuen beren errezitala emanez. Giro ederra izan genuen. Esan, aurten ere izango direla kontzertu bat baino gehiago eta bertara gonbidatuak zaudetela guztiok.

Azkenik, deialdi batekin bukatuko dut. Erroizpe Elkartean bazkideentzako bilera deialdia egina dago datorren urtarrilaren 30erako, Erroizpe Elkartean bertan. Goizeko 11:00etan hamaiketakoa eta ondoren bilera.



Kaleberri

ANE URDANGARAIN

# Tsunami

Azken aste hauetan ezaguna egin da munduan zehar “Tsunami” izeneko fenomeno meteorologikoa. Sumatratik oso gertu egon zen epizentroa eta hau izan da gehien kalteturiko irla. Hala ere, leku askotara zabaldu zen, Indiako kostaldea adibidez Tamil Nadu, Andhra Pradesh, Orissa probintzietan eta Andamar eta Nicobar irletan. Ikaragarrizko irudiak iritsi dira munduko leku guztietara eta nik ere lerro hauekin honetan parte hartu nahi nuke.

Gauza da Indian ezaguturiko neska baten bitartez SOS deia jaso dudala eta horregatik gai honi buruz idaztea pentsatzu dut.

Ikaragarria izan dela kontatu, dit famili pila bat etxean zeudela harrapatu zituela olatuak, ikaragarrizko arrantzale pila arrantzan zebiltzala.....

2004ko abenduaren 26an goizeko 9:00ak aldera izan omen zen ezbeharra Tamil Nadu aldean eta momentu horretan jende pixka bat ibiltzen omen da pasian, arrantzaleak bere lanean eta jende asko oraindik beren etxeetan. Momentu ikaragarriak izan omen ziren. Kasu pilo batean umeak lo zeudela harrapatu zituen. Ia 130.000 mila hildako eta desagertu pila bat daude oraindik. Sekulakoa izan omen da jendearen laguntza baina hala ere ezer ez homen da nahikoa.



Horregatik norbaitek aportazioaren bat egin nahi izanez gero hona hemen zenbakia. La Caixa:

2100-0005-0110499366.

Denok dakigu munduan behar handiak daudela eta oso urrun joan gabe ere herrian bertan beharra dagoen jendea ere badago, baino honelako hondamendi naturalak direnean jendearen konzientzian buelta ematen digu.

Hala ere, bakoitzak daki ondoena non lagundu dezakeen. Hurrengora arte, ondo izan.

Oharra: Argazkia bertan ateratakoa da eta Puddupattinam izeneko herria da. Bertan ikusten da nola geratu den herria.

# Urte hau ere berrikuntza lanekin hasi dugu

Kalezar



ALOÑA PULIDO

Urte berri on NOAUA!ko irakurle guztioi. Zer moduz hasi duzue 2005 urte berri hau? Gehientsuenek seguruenik gripearekin edo ondoezarekin hasi duzuela, egia esan birus honek jende asko harrapatu baitu. Batzuk, sukarra; beste batzuk gorakoa edo beherakoa; eta izan dira beste asko ere buruko mina eta ondoeza soilik izan dutenak. Ederra marka!

Ez dakit ohartu zareten baina 2004 urte bukaeran eta 2005 urtearen hasieran obrak izan dira bai herrian eta baita Kalezarren ere. Usurbilen errotonda berria egiteko obrak jende askori buruhausteak ekarri dizkie. Batzuk kexu dira zabaltzen den hautsa eta lokatza direla eta. Beste askok zera darabilkite buruan; errotonda bukatzean Kale Nagusia norabide bakarrekoa izando denez autobusa non geldituko ote den. Espero dut NOAUA!ren bidez honen berri izatea laster.

Bestalde, Kalezarren ere, lan eta lan dabiltza uraren hodiak pasatzen. Lehen ere, tramu horretan gasa pasatzen aritu ziren eta ziur nago hemendik pixka batera ere, beste zerbait izango dela Ugarteko etxeen eta monjetako etxeen proiektuak aurrera eramaten dituztenean.

Aipamen txiki bat ere egin nahi nuke, lehen ere aipatu izan dudan kontu bat hain zuzen ere. Kalezarren, Saizarko bidegurutzetik gora eta Saizar aldeko etxeetara farolak falta dira. Neguan, gainera, 18:00ak aldera iluntzen duela kontuan izanda ez da ezertxo ere ikusten. Ea bada, San Estebango bidean bezala Kalezarren ere farolak jartzen dituzten, denon mesederako izango baita.

Beno, besterik gabe, 2005 urte zoriontsua opa dizuet denoi eta beste bat arte.

# Eta orain merkealdiak

Atxegalde



JONE EIZMENDI

Joan zaizkigu Gabonak; urte zaharrari agur egin diogu eta hasi dugu urte berria martxa ederrean. Erregeek ere utzi dituzte beren opariak. Zenbat jai, zenbat opari. Opariak egiteko edo hartzeko, beti izaten da momentu ona. Urte guztia dago horretarako, baina egun hauetan, bereiziki, ez al gara pasatu egiten? Donostiara edo merkataritza-gune handietara joateko ere, bide guztiak autoekin kolapsaturik, denok egun horietan erotuta bezala. Ezin esango dugu gaizki bizi garenik, ezta? Horrenbeste kapritxo eginez…

Dena den, auzoko dendarientzat ez zen batere gaizki etorriko. Orain gozatu edo erabiltzea geratzen zaigu, edozer dela ere.

San Sebastianak ere gainean ditugu. Ikastola inguruan ez da faltako danbor hotsik, ilusio handiz arituko dira eta hori da pozgarriena.

Azkenik urtero bezala, merkealdiak,



Erregenetako opariekin asetu ez bagara. Orain aprobetxatu erdi prezioan daude eta. Hala eta guztiz ere, dena kate bat da, askotan behar gehiegirik gabe erortzen gara kontsumismoaren hatzaparretan poltsikoak hustu arte, gero otsaila aldapa gora egingo zaigun arren.



Santuenea

AGUSTIN ESNAOLA

# Santuenean, emakumeak nagusi

Gabonak joan zaizkigu eta auzoan gertakizun pozgarriak izan ditugu egun hauetan.

Bada denboraldi bat, emakume talde bat antolatu dela eta beraien ekintzak aurrera atera nahian proposamen batzuk egin dituztela auzotarrentzako. Irakurri dudan azken proposamena, yogaren ikastaroarena da. Auzoko etxe guztietako atarietan jarri dituzte kartel handi batzuk, jendea parte hartzera animatuz.

Gabon egunean talde bat animatu zen auzoan zehar abesten ateratzera. Talde eder bat ikusten zen, bai ume bai guraso. Esku soinua era bazuten laguntzeko, abestien tartean pieza bat jotzen zuten eta alaitasunak jarraitzen zuen.

Emakume talde honek gauzak ganoraz egin nahi ditu. Udaletxera joan dira beraien aurkezpena egitea eta presidentea aukeratu dute ere, Carmen Oroz. Auzoan animazioa behar dela eta, horrelako talde bat behar beharrezkoa dela auzoko bizitza aurrera eramateko adierazi zaie udaletxean.

Beste kontu bat, auzoko behi pare batek apostu bat jokatu berri du Aiako dema plazan. Apostu hau, Pedernales Bermeoko tratantearen aurka izan zen. Honek Euskal Herri osoan ez zegoela irabaziko zion behi parerik esan zuen, eta auzoko Batistak testigua hartu eta bera desafiatu zuen. Abenduaren 27an jokatu zuten Aiako dema plazan eta jende ugari gerturatu zen horrelako desafio interesgarria ikustera. Interes handia sortu zuen, eta espektakulu polita eman ere, baina auzoko behiak ezin izan zuten Bermeoko behiak gainditu. Dena den, auzoko behiak lehenengo aldia zen plazaratzen zirela eta horrela izateko ez zuten batera paper txarra egin. Jendea gustura geratu zela uzte dugu.

Ikusten denez, auzoan bada zer kontatua, alde batetik emakume talde indartsu eta gogotsu batek ekintzak egiteko gogoa eta asmoa, eta bestetik auzoko baserritarrak bere hazienda frogan jarri nahirik Bermeokoen aurka. Hau bai dela bizirik egotea.



Urdaiaga

EIDER JAUREGI

# Eguraldi aldaketak

Aurtengo negu honetan, elurra gerturatu eta joan egin zaigu. Ondoren, hego-haizea etorri. Azken boladan, ilargi aldaketak oso nabarmenak gertatzen ari dira. Ilargi beteak hotza eta elurra ekarri zizkigun, hilbeherak, aldiz, Gipuzkoa erdia gaixotu arazi duen hego-haize maltzurra. Giro ederra, itxura batean, baina hezurretaraino sartzen den haize gaiztoaz lagunduta.

Eta eguraldiari dagokionez, txarrena hau izan dadila, zeren, India eta Asia astindu dituen itsas-ikarak ez baitu gugan zuzeneko eraginik izan. Honez gain, Europako hainbat herrialdetan uholdeak jasaten ari dira eta itsaso zabalaren bestaldean jasan ezinezko beroa. Aldaketa izugarriak ematen ari da giroa, baina ez gara zerk eragiten ote duen aztertzera momentu batez ere gelditzen.

Aldaketak hauek guztiak igaro aurretik, animaliek nabarmentzen dituzte. Gurean ere, ardiek sinesteziak diren salto eta kolpeak ematen dituzte eguraldi aldaketa hauek datozenean. Asian eta Indian gertatu den bezala, itsas-ikarak eragin duen txikizio guztiaren gainetik, animaliak salbatu egin omen dira.



# Itzao eta Sarikola aldeko kontuak

Aginaga



LONTXO ZUBIRIA

Urte berriarekin bizitza berria izaten omen dugu, baina ez dakit bada Aginagakoontzako ikatz beltza ez ote zaizkigun prestatzen ari erregeak hurrengo Eguberrietarako. Kronikatxo hau Usurbilgo baserriak eta baserritarrak liburu ederrari buruz idazteko asmoa nuen, benetan liburu interesgarria delako. Guztion etxeetan txukun-txukun edukitzeko horietakoa. Mila esker Josu Tellabide, egin duan lanagatik.

Baina joan den larunbateko (urtarrilak 15) “Diario Vascon” azaldu zen albiste batek eman dit lerro hauetarako gaia. Berri horrek esaten zuenez, Itzaoko erriberak eta Sarikolakoak Eusko Jaurlaritzak sartu dituela bere lurralde plangintzan Zona Hezeen katalogoan, lurralde babestu moduan. Aginagatik Oriorako mugan dauden lur horiek edukiko omen dute esate baterako Hondarribia-Irun-Hendaiako Txingudi inguruak daukan babes bera.

Babes hori gabe baina katalogatuta geratu dira Izoztegiko erriberak, Aginagako Mapil eta Intxaurreta artean Oriaz beste aldetik daudenak. Lur horiek baserri lanetarako eta landa eremu izendatuta geratzen dira. Horixe da hain zuzen harridura sortu diguna: Usurbilgo Udalak sail horiek eremu babestuak zirela esan baitzuen. Zer esan nahi du oraingo aldaketa honek?

Aginagan asko gara kontu hauek aipatzen edo mugitzen hasten diren bakoitzean kezkatzen garenak. Orain dela ia 30 urte zubi famatuaren kontu triste haiek izan ziren. Azken urteotan, Orio-Aia aldetik arraun eremu handi bat, golf zelaiak eta beste hainbat astakeria Aginagaraino iritsiko ote ziren zabaldu zen, proiektu eta guzti.

Albiste hau ikusita, berriro hasi beharko dugu galdezka Usurbilgo udaletxean, ea zertan dauden erribera horiek babesteko erabakiak.

# Ehiztariak, eskopeteroak eta asta-pistolak

Zubieta



PELLO ARANBURU

Txikitan, ia ume gehienei bezala, atentzioa ematen zidaten animaliak. Gustoko nituen, ikusten nituenak telebista txuri-beltzean baziren ere. A! eta Felix Rodriguez de la Fuentek erakutsiak gainera. Orduan oso animalia gutxi nituen inguruan. Mendia eta landa oso urruti zeuden etxetik.

Gaur egun Zubietan –eta Usurbilen ere bai– nahikoa dut edozein aldetara bi pauso ematea basoan, mendian edo zelaian mota guztietako animaliak ikusteko. Bai abereak, bai piztiak. Otzandutako oreinak eta martin arrantzale izutiak; karramarroak erretenetan eta auskalo nondik ihes egindako faisaiak… Eta txikitan baino alaiago gozatzen ditut animaliak ikusteko aukerak.

Baina ehiza kontuak ekarri nahi ditut hizpidera gaurkoan. Ezagutzen ditut Zubietan ehiztari batzuk zintzo xamarrak: animaliak ondo ezagutzen dituzte, haien ehiza saioetako istorioak kontatzen hasi eta aho zabalik uzten gaituzte, eta ederki ezagutzen dute haien eskopetaren muga non dagoen.

Ai ze oilagor gutxi aurten …

Kontua da badagoela tartean bestelako jendea: eskopeta eskuan hartu eta katuari aise eragiten dioena. Aitzakiarik behar ez duena tiroka hasteko. Eta non ari den bi aldiz pentsatzen ez duena.

Azken aldian badabil horietako bat gure inguruan. Bizpahiru aldiz sumatu ditut perdigoiak erortzen etxe ondoan, tiroa entzun ondoren. Leihotik begiratu eta hara non eskopeteroa ubarroiari tiroka –legez kontra–. Baina okerrena gure etxe inguruan bizilagunak bildutako bi koartzen hezurdura osoak. Hau egin duenak eskopeta ez, pistola du: asta-pistola galanta.

Azkena. Bizilagunak jaso zuen joan den astean miru eder bat zauritua, eta sei bat egunetan etxean zaindu du, halako batean ihes egin dion arte. Ez dakigu perdigoi zauria izan ote den...

Eta ez dakit nola esan, nola kontatu miragarria iruditzen zaidala bizitza ugaritasun hau inguruan: koloretan, eta ez txuri-beltzean.

# Errotonda berriak aldaketak eragin ditu herriko trafikoan

**Epe laburrean, Kale Nagusia urbanizatu eta norabide bakarrekoan bilakatuko da. Okerrik ez bada, 2005ean egingo lirateke urbanizazio lanak. Egoera berriak bestelako eraginik izango du. Orain, San Inazioko errotonda berriak ez baitu Kale Nagusirako bidea ematen. Lanak amaitzen direnean ere, hala izango da. Beraz, San Inaziotik Bordatxo ondoko errotondara igo eta Zubiaurrenea kaletik hartu beharko da Kale Nagusirako bidea.**



ERROTONDA BERRIAK EZ DU KALE NAGUSIRAKO BIDEA EMATEN.

Premiazkoa da Kale Nagusiaren urbanizazioa. Oinezkoentzat, esate baterako, ez dago espaloirik elizatik Txaramuntoko etxeetarainoko tartean. Arriskutsu izateaz gain, deserosoa ere bada oinezkoarentzat. Ez dugu guk esaten. Udaltzaingoak 2004ko apirilean egin txostenean jasotako hausnarketak dira. Beraz, ez da oraingo kezka. Aspalditik datorrena baizik. San Inazioko errotonda berriak trafikoan eragin zuzena izango du eta Kale Nagusiaren onerako izango da. Zuzenean ala zeharka, Kale Nagusiaren egoera hobetuko duela, alegia.

Orain bezala, San Inazioko errotonda amaitzerakoan ere, Zumaiatik 634 errepide nazionaletik edota Zumartegi Industrialdetik datorren trafikoa Bordatxo ondoko errotondara bideratuko da. Hortik, Zubiaurrenea edota Borda Berri kaleetatik behera, Kale Nagusira sartzeko aukera izango da.

Kale Nagusia norabide bakarrean jartzen dutenean, Donostiatik (Ostapetik barrena) edo Bizkarreko zubitik datorren trafikoan ez da aldaketarik izango. Kale Nagusira edo Errekatxikiko errontondatik Zubiaurrenea kalera bideratuko da. Orain egiten den moduan.

## Autobusa non geratuko da?

Neurri hauek guztiak eraginik izango dute autobus erabiltzaileen artean. Donostiatik Zumaiara bidean, ez da aldaketarik izango. Orain bezalatsu mantenduko da. Donostiatik Zumaiara doan Euskotren autobusak elizaren ondoan eta errotonda inguruan egingo du geldialdia. Zumaiatik Donostiara doan autobusa, ordea, ez da Kale Nagusitik pasako. Orain, lanak iraun bitartean, Etxe Aldian geratzen da autobusa. Baina Kale Nagusia norabide bakarrean bihurtzen denean, ikusi behar non egingo duen geldialdia. Gezurra dirudien arren, oraindik ez da zehaztu. Jakin bezain pronto jakinaraziko dugu NOAUA!n.

## Diputazioa eta Udalaren iritziak ez datoz bat

Etorkizunean, Euskotreneko autobusen geltokiak non izango diren ezin da zehaztu oraindik. Antza denez, irizpide ezberdinekoak dira Udala eta Foru Aldundia. Horren lekuko da Usurbilgo Udaleko udalbatza plenoak 2004ko abenduaren 28an izandako ohiko bileran aho batez onartu zuen honako mozioa:

"Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio Departamentuak jakinarazi duenez, Euskotren konpainiak Usurbilgo autobus geltokien kokalekuei dagokien hainbat aldaketa egin nahi ditu.

Oriorako norabidean Elizako geltokia kendu nahi dute. Donostiarako norabidean berriz, behin behingoz, San Inazioko errotonda inguruan egongo litzateke geltokia, baina, 2-3 urte barru N-634 errepidera jaisteko asmoa dute.

Udalak, egungo geltokiak mantentzea nahi du, herriarentzat galera duen kokalekurik ez duelarik onartuko.

Hau ikusirik, Usurbilgo Udalbatza Plenoak honako hau adierazten du aho batez:

1. Euskotren konpainiak Usurbilgo erdialdean dituen autobus geltokiak honako hauek izatea:

• Donostiatik Oriorako norabidean: Kalezarko eskaileretan, erdigunean eta Atxegalden.

• Oriotik Donostiarako norabidean: Lehenengo geltokia Etxealdiako zubi peatonalaren azpian, ondoren Bizkarretik sartu eta bigarren geltokia erdigunean eta irteera Donostia aldera San Inazioko errotonda berritik.

2. Euskotren konpainiak, tren eta autobus zerbitzuak bereak dituenez, bi modalitateak pase eta deskontu berdinekin erabili ahal izatea.

3. Eskaera hau publikatzea.

4. Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio Departamentuari eta Euskotren-i jakinaraztea".

# Herria luzatzen ari da

**Auto gidariak jabetu diren bezalaxe, San Inazioko errotondak herriko kaleen arteko komunikazioan eragin du. Azken hilabeteotan, ordea, bestelako aldaketak ere eman dira. Herria handitzen, luzatzen ari da eta trafikoa errealitate berrira egokitu behar da. Horrela uler daitezke azken boladan eman diren hainbat urrats.**

Borda Berri kalea norabide bakarrekoan bilakatu eta Artzabal ondoan hainbat aparkaleku egin dira. Aldaketa honekin, bide batez, Alperro Buru-San Inazioko errotonda berritik datozen ibilgailuen sarrera-irteera indartu nahi izan da. Eta Puntapax zein Gernika Ibilbidetik (kiroldegitik) datozenak, Borda Berrira bideratu.

Erreka Txikiko tramu berria, aldiz, norabide bakarrean jarri da. Era honetan, 40 aparkaleku berri sortu dira eta trafikoa Puntapax aldera bideratu da.



ERREKA TXIKIKO EREMUAN BERROGEHI APARKALEKU BERRI SORTU DIRA.

Aparkalekuena ere bada konpondu beharreko beste kontu bat. Etxebizitza gehiagorekin, autoen kopuruak ere gora egin du. Hori ere bada Udaltzaingoaren kezka. Galtzaragaina kalea norabide bakarrean ipini denetik, esate baterako, ibilgailuak goialdetik Puntapax aldera bideratu dira. Neurri honekin 25 aparkaleku irabazi ditu Galtzaragainak.

## Zubietako Garraio Zentroa inauguratu berri da

Joxe Joan Gonzalez de Txabarri, Gipuzkoako diputatu nagusiak eta Koldo Azkoitia, Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako diputatuak urtarrilaren 12an inauguratu zuten Zubietako Garraio Zentroko kamioientzako aparkalekua. Aparkaleku berrian kamioientzako 230 leku eta garraiolarien autoentzako beste 78 leku daude, horrela aukera izango dute beren etxeetatik bertara joateko eta alderantziz. Aparkalekuaren eremu osoa hesituta dago. Garraio Zentro berriak tele-zaintzako zirkuitu itxia, suteen aurkako ur paldoak, telefonia eta megafonia sistema, komunak eta sarrera kontrola ditu. Azpiegitura logistiko berriak 25.500m2 ditu 470 metro luze eta 55 metro zabaleko eremuan, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 9.710,474 euroko inbertsioa egin du.

# Izaera pertsonaleko datuen babeserako legea dela eta, zenbait argibide

Zenbait kudeaketa edo gestio egiteko orduan, herritarrak udaletxera zuzendu izan ohi dira erreziboen duplikatuak, zergak ordaintzeko kontu korronteak ematera edota zordun ez izatearen ziurtagiria eskatzera.

Udal teknikariek igorri diguten prentsa-oharraren arabera, “izaera pertsonaleko datuen babeserako indarrean sartu zen lege organikoaren arabera, Udalak datuen titularrei emango dizkie eskaturiko agiriak. Zerga edo agiriaren titularrak udaletxera etorri ezin duen kasuan, udaletxera etorriko den pertsona baimendu beharko du, udaletxean dagoen baimen-eredua edo norberak egindako baimen-orria udaletxean datu jabearen nortasun agiriaren kopiarekin bat aurkeztuz. Eredua honako hau izan daiteke”.



DATUEN JABEA edo TITULARRA:

Jaun andrea:
I.Z.K / N.A.N.:

Baimentzen du

| (Aurkeztuaren) IZEN-ABIZENAK / | NAN / IZK |
| --- | --- |
| | |

Norberaren izenean eskuratzea eta jasotzea

| KONTZEPTUedo ZERGA | FINKA edo ERREFERENTZIA |
| --- | --- |
| | |

Abenduaren 13ko 15/99 Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko Lege Organikoari jarraituz.

Usurbilen, 2005.(e)ko (e)an.
Datuen jabearen sinadura,

UDALETXEAN ESKURA DAUDEN EREDUETAKO BAT DUZUE HAUXE.

Erreziboen bikoiztuak/zordun ez izatearen ziurtagiria /ondasunen ziurtagiria... Interesatuak eskatu ezin dituen kasuan, irudian duzuen tankerakoa beharko du izan aurkeztu beharreko baimen-orria, hirugarren bati baimentzeko orria.

## UDAL AURREKONTUEN ESPEROAN

Urtea hasi dugu eta aurrekontuak oraindik ez dira udalbatza plenotik pasa. Aspaldi hasi ziren alderdien arteko negoziazioak. Adostasuna, ordea, gertu dirudi. Beraz, okerrik ez bada, laster onartuko dira 2005eko udal aurrekontuak.

## EZ-OHIKO UDALBATZA PLENOA

Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, iragan irailaren 14an, Usurbilgo Arau Subsidiarioen berrikuspena behin betikoz onartzea erabaki zuen. Baina Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean erdal eta euskarazko bertsioak ez ziren bat etortzen. Urtarrilaren 11ko ez-ohiko udalbatza plenoan, talde erredaktatzaileak egindako zuzenketak onartu ziren.

# KzGuneko zerbitzua egun erdira murriztu da

**Usurbilgo KzGunea duela urte eta erdi zabaldu zen, 2003ko maiatzan. Ordutik hona, asko izan dira zerbitzu honetaz baliatu diren herritarrak. Batzuk, Interneten munduan sartzeko asmoz joan dira; beste batzuk, abiadura handiko konexioaren abantailaz baliatuz, Interneten nabigatzera. Batzuk eta besteak, goizez nahiz arratsez hurbiltzeko aukera izan dute. Baina aurrerantzean, bakarrik egun erdiz irekiko dira KzGuneko ateak. Urtarrilean eta otsailean, esate baterako, arratsaldez, 16:00etatik 20:00etara.**

Aurretik gauza jakina zen. Beraz, ordutegi murrizketarena ez da azken orduko erabakia izan. Ezta erantzun kaskarra izan duen seinale. Lagun asko pasa baitira KzGunetik, eta gaur egun asko dira Kale Nagusian dagoen egoitzara hurbiltzen direnak. Hizpide dugun ordu murrizketa, KzGunearen programa orokorrarekin bat datorren neurria da. EAEko hiru lurralde historikoetako udalerri guztietara heldu nahian, tutoreak herri ezberdinetan aritu beharra daude. Urnietakoa ireki berri da eta Montse Velasco, Usurbilgo tutorea, bietan izango da aurrerantzean.

**Urtarrila eta otsaila, arratsaldez**

KzGuneak aditzera eman digunez, urtarrilaren 14tik Usurbilgo KZguneko zerbitzua egun erdira murriztu zen. Honen ondorioz, urtarrilean eta otsailean arratsaldez bakarrik egongo da



HERRITARREK BERE EGIN DUTE KZGUNEA.

KzGunea zabalik. Baina, adi. Horrek ez du esan nahi aurrerantzean bakarrik arratsaldez irekiko denik. Martxoan, seguraski, goizez irekiko da. Beraz, ordutegia hilabetez hilabete aldatuko da. Nolanahi ere, oinarrizko Internet ikastaroa eta mintegi desberdinak orain arte bezala eskainiko dira.

# Montse Velasco, KzGuneko tutorea: "Ikastaroak eskaintzen jarraituko dugu"

**Montse Velasco aski ezaguna da KzGunera hurbiltzen diren erabiltzaileen artean. Gustura egiten du tutore lana eta hori KzGunera hurbiltzen direnei transmititzen asmatu du.**

**NOAUA! 2003ko maiatzean zabaldu zen KzGunea Usurbilen. Zein izan da arrakasta gehien izan duen eskaintza?**

**Montse Velasco.** Hasieran, Oinarrizko Internet ikastaroa jasotzera hurbildu ziren erabiltzaile gehienak. Lehen urtean hala izan zen. Gero, ikastaroetako matrikulazio kopurua jeitsi egin zen baina nabigatzera zetorren jendea gero eta gehiago zen. Ikastaroak eskaintzen jarraitzen dugu oraindik, baina gaur egun gehienak Interneten nabigatzera datoz.

**N. Ikastaroez gain, denetariko mintegiak antolatu dituzue.**

**M. V.** Bai, mintegietara ez dira horrenbeste animatu. Irailean, lanpostua bilatzeko ikastaroa antolatu genuen. Abenduan, gabonen aitzakiarekin, postalak bidaltzeko ikastaroa. Baina jendearen erantzuna kasu hauetan apalagoa izan da. Nahiz homologaturik ez egon, IT txartelaren esaminak, ordea, arrakasta izan du.

**N. Beraz, KzGuneak herrian txertatzea lortu duela esan daiteke.**

**M. V.** Bai, hala da. Pozik gaude herritarren erantzunarekin. Egunero, orduoro jendea dabil. Edade guztietakoak datoz. Kanpotik ere (Donostia, Orio, Zarautz) etorri izan dira hona ikastera edo nabigatzera.

**N. Ordutegi-murrizketak zerbitzuen gutxitzea ekarriko al du?**

**M. V.** Ez. Ikastaroak eta mintegiak berdin-berdin antolatuko dira. Denbora gutxiago izango da ikasteko, nabigatzeko... baina zerbitzu hauek



MONTSE VELASCO TUTOREA POZIK DAGO KZGUNEAK IZAN DUEN HARRERAREKIN.

denak berdin-berdin eskainiko ditugu aurrerantzean.

**N. Galdetzen hasita, zer moduz moldatzen gara ordenadore eta Internet kontuetan?**

**M. V.** Nahiko ondo. Belaunaldi ezberdinekoak pasa dira hemendik. Ikastaroak ere, oso dinamikoak dira. Ikasleak, euren artean laguntzen dira.

# KzGunearen laguntzaz web orria osatu dute Andatzak eta Zumartek

**Herritar asko baliatu dira KzGunearen zerbitzuetaz. Herritar ugari eta baita hainbat elkarte ere. Zerbitzu honi esker, Andatza Kultur Kirol Elkarteak eta Zumarte Musika Eskolak web orri propioa osatzeko aukera izan dute.**

Andatza KKE eta Zumarte Musika Eskolarentzat guztiz onuragarria izan da Kale Nagusian dagoen KzGunea. Aurretik, ez zuten web orrialderik. Baina Montse Velasco tutorearen laguntzari esker, jada badute web orrialde propioa: Andatzak, www.andatza.com; Zumartek Musika Eskolak, www.zumarte.org.

KzGuneko tutorearen esanetan, “Zumarte adibidetzat jartzen da KzGune askotan”. Oso ondo antolatuta egoteaz gain, maiz berritzen baitute.





## KzGunea

### Datozen ikastaroak

IKASTAROAK

OINARRIZKO INTERNET (20 ordu)

1. Otsailak 14-25, arratsaldez, 16:00-18:00. (Euskaraz).

NAGUSIWEB (10 ordu)

1. Urtarrilak 31-otsailak 4, arratsaldez, 16:00-18:00. (Euskeraz).

MINTEGIAK

**1.“Sarean Lagundu”**, martxoak 2 asteazkena, goizez, 11:00-13:00. (Euskeraz).

**2. “Interneten Bilatu”**, martxoak 4 ostirala, goizez, 11:00-13:00. (Gaztelaniaz).

AZTERKETAK

**1. IT Txartela.** Otsailak 28 astelehena, goizez, 11:00-13:00.



# Eskura itzazu NOAUA!ko tapa eta aurkibidea

**Txotx garaiarekin batera NOAUA! koadernatzeko garaia iritsi ohi da. 2004 urteko aldizkari guztiak bilduta badituzu, lan erraza duzu. 2004ko tapa eta aurkibidea eskuratu eta Lizardin edo Lauroken koadernatzeko aukera duzu. Gogoan izan, bazkide zareten guztiok, azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezuela NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan, Bordaberri 3 kalean.**

Tapak eta aurkibidea doan dira bazkideentzat. NOAUA!n eskura ditzakezue biak. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 euro ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1´20 euro, aurkibidearengatik.



Jendea hasi da Noaua! guztiak koadernatzen.

Koadernatzea, berriz, **Lizardin** edota **Lauro**ken egin dezakezue. Baina koadernaketa berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek. Ez ahaztu bi denda hauetan ere, eskura dituzuela 2004ko tapak eta aurkibideak.

## Baserrien liburua, oraindik eskuragai

Josu Tellabide etnografoak NOAUA!ko kide diren Jakoba Errekondo eta Iñaki Salsamendiren laguntzaz idatzi duen liburuak arrakasta itzela izan du. Gabonak pasa eta gero ere, salmenta bizi-bizi doa.

Liburua saltoki ezberdinetan dago salgai eta baita NOAUA!ko egoitzan ere. Elkarteko bazkideei merkeago ateratzen zaie liburua eta askok ondo aprobetxatu dute aukera. 25 eurotan dago bazkideentzat; gainontzekoentzat, 38 eurotan.





# Urtarrilaren 29tik martxoaren 9ra autobusez beteko da Usurbil-Amara arteko tren zerbitzua

**Donostialdeko trenbidearen Hegoaldeko Saihesbidearen lanak direla eta, urtarrilaren 29atik aurrera ez da trenik izango Usurbil eta Amara artean. Hilabetez edo, beraz, trenean beharrean autobusean egingo dira Euskotrenen tren zerbitzuak. Eragozpenak sahiestu arren, Euskotrenek autobusak ipiniko ditu Usurbil eta Amara artean. Topoarekin ere (Lasarte Oria-Amara-Hendaia) gauza bera egiteko asmoa du Euskotrenek.**



MARTXOAREN 9TIK AURRERA NORMALTASUNERA ITZULIKO DA TREN-SAREA.

Laster, tren zerbitzua eten egin beharko da aipatutako ibilbide eta egunetan, eta, ondorioz, erabiltzaileek autobusa hartu beharko dute beraien helmugara iritsi ahal izateko. Lan horien artean sartzen dira Lugaritzen geltoki berria eraikitzea eta Añorga eta Amara artean bide bikoitza jartzea. Lugaritzeko geltoki berriarekin asko hobetuko da Ibaetako campuseko unibertsitate komunitateari eta inguru horietan bizi direnei eskaintzen zaien zerbitzua. Horrez gain, bide bikoitza instalatzean ibilbideak egiteko denbora murriztu ahal izango da, eta etorkizunean maiztasunak hobetu egin ahal izango dira, beti ere, tren zerbitzuaren eskariaren arabera. Zati hori bikoizteko egitasmoak 3.295 metro biltzen ditu, horietako 1.847 lur azpitik eta 1.448 aire zabalean.

## Aizpurua autobusetan

Urtarrilaren 29tik martxoaren 9ra, beraz, Aizpurua Autobusak beteko du trenaren zerbitzua. Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen informazio telefono zenbakia eta web orria dute eskura: 902 5 4 3 2 1 0 y www.euskotren.es. Horrez gain, datozen egunetan konpainiak informazio kanpaina abiaraziko du Bilbao-Donostia eta Topoa (Lasarte Oria-Amara-Hendaia) lineatako kanpoaldeetan eta geralekuetan.









# Aspaldiko desafio sonatuenetakoa

**Pasa den 2004ko abenduak 27an Aiako dema-plazan aspaldiko desafio sonatuenetako bat jokatua da. Inguru hauetan behi-uztarri arteko demarik ikusi ez dala urteak dira! Elurraren ondorengo eguna, gau hotza, 2º C besterik ez baina plaza bero, guri-guri. Sarrera hamabosna euro ordaindu zuten ia bostehun demazale Aiako plazako harmailetan eta zubi bitxian; ehunen bat usurbildar, herrikoa bai zen uztarrietako bat: Santueneakoa, Bautista Esnaolarena, alegia.**



SANTUENEAKO BEHI-PAREAREN MARKA 27 PLAZA ETA ZINTA BAT PASAXEA IZAN ZEN.

Bermeoko Pedernalesen behi-pare sonatua aurkaria; Azkoitiko probetan idi-uztarri batzuk baino marka hobea egina. Horra apustuaren baldintzak: pisu librean, ordu erdia osatzea, Aiako betiko 1.750 kiloko harria 100 kiloko gainzamarekin, Gipuzkoako herri kirolen federakundeak epaitua eta alde bakoitzak 600 euro jokoan. Pedernalesen parea Zestoako Lopene harakina aurreitzai eta Lasarteko Telleria atzeitzai edo karreteroen laguntzarekin. Santuenekoaren taldea: proba aurreko zurrumurruek Jose Ramon "Iketza" famatua eta Arratzainaundiko "Doblia" itzaitzan izango zituela bazioten ere, atzeitzai Iñaki Urrutia ezaguna, Asteasuko Olarreagagoikoako Aitor "Katus" aurreitzai eta oraindik maila honetako apustun inoiz ikusi gabeko Arratzainaundiko itzai kasta ezaguneko Jurgi, "Triplia", "Doblia"-n semea, harriari lepaka.

## Kalezarko Juan Inazio Lizaso, relojero lanetan

Aiako plaza dotore, erraztu berria, jende desdetxa. Kanuako Zurrunbilok utzi zionetik ari den ohiko langile taldea: Joseba Egaña "Kolonbo", Imanol Sarasola eta Jonsansoroko Iñigo Lopetegi. Ziriako Arrate Irratiko kontalari ezaguna mikrofonoan eta Gipuzkoako Herri Kirol Federakundeko Jose Luis Sarasola aiarra mahaian eta Matxain errenderiarra galtzaran, zigorra eskuan, epaile lanetan.

Zozketak Santueneakoa lehenengo plazaratu zuen. Hor azaldu zen behi-gorri parea, mantapean, sei-perran, kopeteko gorri-berde deigarriak adar zabal luzeetan uztarriari dotore hedetuta. Lizarrezko betiko timoia kurteriaz uztarriari eta katez harriari lotzen eta bederatzi artekarien trabesarako buila 30 ezetz eta 26 baietz. Uztarriaren eta hiru itzaien proba gidatzen duen relojero lan zailean Kalezarko Juan Inazio Lizaso. Hasera, hotzean, motel samarra baina minutuko plaza osatuz. Bederatzigarren plazarako bidean eskubiak demazaleon artean "cara al sol" bezela ezagutzen dena egin, muturra altxa eta harria gelditu egin zen. Aisa hartu zuten berriro eta trabesak 21 plaza baietz eta 22 ezetz ziren 13. minutuan eta 11 plaza eginda. Sutan zen nere aldameneko aizarnazabaldarra, eskubia solte zela zioen, bere adarretan uztarrian lasa zela, alegia. Erdi-proban 13 plazak eginak zituzten eta 20. minutuan, 19 eginda, 27 bai 29 ez kantatzen zen harmailapetik. 22. eta 23. plazak egiterakoan, nahiz eta Urrutiak salta eta akuilua uztarriaren eskubiko muturrean iltzatu eta bultza harria plaza erdian gelditu egin zen. 27 bai eta 28 ez entzuten zen, 24 plaza eginda, "Triplia"-k eta Urrutiak urbotila urari probako dzangateko bakarra eman ziotenean, 25. minutuan. Amaiera txilipitua entzun zenean plazako epailearen zigorraren punttak iparraldeko zintarrian adierazten zuen Santueneako behiparearen marka: 27 plaza eta zinta bat pasaxea.

## "Mendeko lana jarri zek"

Harria entregatu, uztarria timoitik askatu eta bigarren parea plazaratu artean inguruko tebernek izan zuten pagotxa.

Aldameneko orrian jarraitzen du









Aldameneko orritik dator

Demazalez lepo, marmarra trikiti doinuen gainetik, "mendeko lana jarri zek" entzun nuen Kanuan.

Laister zen karrejuan Bermeoko parea, Lopene eta Telleria laguntzaile. Eskubia sei-perran eta ezkerra bost-perran, Santanderino eta Durango arrazen arteko Merziano gaztain-koloreak dira. Aurrekoak ez bezela, adar motxak eta samako korbata berde berriak idunean, dotore, plazaratu ziren. Zintzilikario arreko kopetekoak, ordea, bai itsusiak! Berak apropos ekarritako aluminiozko timoi borobil distiratsu bati kurtedetu zioten uztarria. Hau harriari ondo kateatua zela probatu ondoren, artekarien 31 bai eta 34 ez artean txilipitua entzun zen. Santueneakoen gisara minutuko plaza eginez abiatu baziren ere bederatzigarren minuturako hamar plaza eginak zituzten. Erdi-proban 16 plaza eginak eta Ziriakoren kontutan bi minutu aurretik ziren hauek. Hemen Telleriak, zale askok premiazkoa ez zela ustetan ulertzen ez zuten arieran, saltatu eta behiak hankapetik akuilatzen hasi zen. 22. plaza egiterakoan akuiluak eragindako lehen marrua entzun zen eta hogeitabostgarrenaren bila abiatu eta bigarren zintan harriak herrialdeko zintarria zanpatu eta ustel egin zuen. 26. plaza ere bi ekinalditan osatu bazuten ere, 26 minutu eta 40 segundutan Santueneako uztarriaren marka tapatua zuten. Behien nagusia, Pedernales bera relojero lanetan zutela 32 plaza edo ultze juxtuko marka jarria zuten orduerdirako.

### Bueltako saioaren zai

Usurbildar demazaleak herrikoen lanagatik pozik, baina harrokeriarik gabe; Bizkaia aldean, oraindik lotu gabeko data batean jokatzekoa omen den bueltako saioaren zai izan beharko dugu. Giroa zaila izango da, baina ea Aiakoan baino megafonia hobea den hango plazan.

**Jakoba Errekondo**

# Gure pilotariak Berria Txapelketan

**Dagoeneko hasi da taldekako II. Berria Pilota Txapel-keta. Aurreko urtean baino zortzi elkarte gehiagok hartuko dute parte honakoan. Iaz 24 elkarte izan ziren partehartzaileak; aurten, 32. Tartean, Usurbilgo ordezkaritza.**



AGINAGAN HAINBAT PARTIDA JOKATUKO DIRA

Joko eta kanporatze sistema, berriz, iazko bera izango da. Talde bakoitzak hiru bikote aurkeztu beharko ditu kadetetakoa, gaztetakoa eta seniorretakoa, eta ez dira garaipenak kontuan hartuko, hiru bikoteek batzen duten tanto kopurua baizik. «Joko sistema ez dugu aldatu, egokia eta arrakastatsua iruditzen zaigulako», azaldu zuen Urnietan egin aurkezpenean Enrike Huizik.

### 32 talde batu ditu txapelketak

Aurten, Berria Pilota Txapelketak Euskal Herriko eta Errioxako 32 talde batu ditu. Txapelketak lau zerrendaburu izango ditu, eta kanporaketa sistemarekin jokatuko da. Multzoen buruak iaz finalerdietara iritsi ziren lau taldeak izango dira: Zazpi Iturri, Aurrera Saiaz, Hernani eta Oberena.

### Errioxarrak ere lehian

Txapelketa 12 astez luzatuko da. Jaialdiak Urnietan, Aginagan, Hernanin eta Altzan jokatuko dira. Taldeen jatorriari erreparatuz, Gipuzkoak izango du talde gehien: guztira hamabi. Nafarroako taldeak, berriz, bederatzi izango dira. Bizkaiak zazpi parte-hartzaile izango ditu, eta Arabak bi baino ez. Iparraldetik, hainbat elkarteko jokalariekin osaturiko talde bat iritsiko da. Errioxako talde bat izango da, halaber.

## Usurbildarrak, iazko lana hobetzeko gogoz

**Usurbilgo pilotariak iaz baino emaitza hobeak eskuratzeko asmoz kantxaratuko dira. Ez ahaztu, Berria Txapelketako partida asko Aginagako pilotalekuan jokatuko direla. Hauek dira txapelketa honetan arituko diren pilotariak.**

Kadeteak: Eñaut Esnaola, Imanol Esnaola, Jon Esnal, Iñigo Irastorza, Iker Zinkunegi

Jubenilak: Iribar anaiak (hauek Zumaikoak dira).

Nagusiak: Jon Olaizola, Ibai Orena, Asier Portu, Xabier Errasti, Jabier Santxo, Enrike Huizi, Asier Arruti.

Aurten ez da jubenil mailako pilotaririk, eta horregatik, Zumaiako bikotea arituko da Usurbilgoekin batera.

Zendoia

Kale Nagusia 35 Tel.: 943 37 40 21

Knkl
Zubiaurrenea, 3

gorriti
EDARITEGIA
Kafe berezia!
San Esteban kalea, 8
Telf: 943 36 27 70



# Zer moduz autorik gabe?

**Irailaren 18tik 26ra bitarteko astean, Autorik Gabeko Astea ospatu zen hainbat lekutan, besteak beste, Usurbilen. Hori dela eta, aipatutako aste horretako egun batean, hainbat ekitaldi burutu genituen, esate baterako, txokolatada, bi bizikletaren zozketa, buruhandiak eta abar. Aste honen ostean, gaia gehiago sakondu nahi izan genuen, eta Udarregi Ikastolako LH5 mailatik gorako ikasleen gurasoei galdeketa bat egitea bururatu zitzaigun. Jarraian azalduko dizkizuegu bertan egindako galderetako batzuk.**

Autoa gutxiago erabili eta beste bitarteko batzuk erabiltzea egokia iruditzen al zaien galdetuta, orokorrean, baiezkoa izan da erantzuna, eta hauek izan dira baiezko horren arrazoiak:

- Autoaren gehiegizko kutsadura dela eta.
- Osasuntsuagoa delako.
- Merkeagoa delako.
- Autoek zarata gehiegi sortzen dutelako.
- Arrisku gutxiago dagoelako.

Usurbildar gurasoek beraien seme-alabentzat arriskutsuen diren guneak, erdiguneko errotonda, trenbidea eta Kale Nagusia direla diote.

Maila txikiagoan, berriz, Urbileko inguruak, kaskoa, beheko errotonda, Ikastola inguruko irteerak, Musika Eskola eta Zubietako errebueltak direla ere esaten dute.

Autoaren erabilera murrizteko irtenbideetako bat bizikleta erabiltzea da, baina Usurbilen garraio hau erabiltzeko arazo batzuk badirela ikusi dugu galdeketen erantzunak behatuta. Arazo hauetako batzuk honako hauek dira: Bidegorri falta, errepide nagusia/ trenbidea... zeharkatu beharra, Aginaga zeharkatzen duen bidea, trafiko handia, moto eta autoen abiadura azkarregia...

Haurrak bakarrik eta arriskurik gabe ibiltzeko herrian zer aldatu beharko litzatekeen galdetu diegu gurasoei eta ondoko hauek izan dira jaso ditugun erantzunik aipagarrienak: kaskoa trafikoari ixtea, umeen ibilguneak zaintzea, Bide Gorri gehiago jartzea, espaloietan aparkatzea debekatzea eta zebrabide gehiago jartzea.



Bidegorriak falta direla uste dute gurasoek.

Gaiaren inguruko proposamen edo komentarioak egitea eskatzen zen galdeketan. Besteak beste, honelakoak azaldu dira: garraio publikoa maizagoa izatea, Urbilen tren geltokia egotea, Kalezarko autobus geltokia lekuz aldatzea, bide gorriak jartzea, bizikletentzako aparkalekuak egotea,...

Ikusten denez, jendeak autoa gutxiago erabiltzearen aldeko apustua egingo luke baina oztopoak sumatzen dira hori halaxe izan dadin. Ardura dutenek badute zereginik, beraz, benetan sustatu nahi badira autoarekiko bide alternatiboak.

*"Autorik gabeko astean" DBH 4. milako ikasleek egindako testua.*

MIKEL IZ GI E
ELEKT IZIT TE

Urtinea
San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

PATRi
JATETXEA
- Eguneroko menuak
- Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Telf: 943 36 27 25
Kale nagusia, 14

ITURGINTZA
J SE NGU EN

ZUMET MENU K
ZUMET J TETXE

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Okindegia - Gozotegia
LABE-GOXO

## Lehiaketa!

# NOAUA!ko LEHIAKETA!!




NOAUA!-ko kamiseta

NOAUA!ko 2005eko egutegi ikusgarria

NOAUA!-ko 2004ko ale guztiak enkuadernatuta

Telefono deiak hartzeko ohar takoa

Erosketak egiteko ohar takoa

Lehiaketako galdera hau asmatzen baduzue sari zoragarri hau irabaz dezakezue! EZETZ ASMATU!!!

**Pasa den abenduaren 26an Oreretako Galtzarabordako kiroldegian Gabon Abesti Sariketa Probintzialaren 58. edizioa jokatu zen. Ba al dakizu Haurren mailan nor nagusitu zen?**

1) Eresargi Abesbetza
2) Irriu Abesbatza
3) Zumarte-Orereta Abesbatza

Erantzunak bidaltzeko azken eguna URTARRILAK 28
Noaua! hamaboskaria, Bordaberri 3 Eguzkitzaldea, 20170 Usurbil (Gipuzkoa), Noaua! Kultur Elkarteko buzoian edo e-posta: erredakzioa@noaua.com

**196. lehiaketako erantzuna:**
Ba al dakizu Noaua! Kultur Elkarteak argitaratu berri duen 2005eko egutegian agertzen den lehen argazki handiko (urtarrilekoa) zubiaren izena?
BIZKARTXOKO ZUBIA

Irabazlea **ROSA MENDIZABAL** izan da. ZAZPIAK BATMAN kamiseta, ARGIA-ko 2005eko egutegia eta LAUBURUA mahai jolasa irabazi ditu. ZORIONAK! Jaso ezazu saria Noaua!ko egoitzan.



## Denborapasak!



| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Jarraitua / Gurari | | Pl., jostailu mota / Arnasa | | Maiteak / Katu haragia | | Zezen zikiratu / Nitro-genoa | | Barne organoa |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | Marokoko hiriburua / Intsektu mota | | | | | | Iridioa / Kanpo, landa | | |
| * DEITURA / Ikasbidea | | Zaindua / * IZENA | | | | | | | | Röntgen / Benetan | |
| | | | | | | | | | | | |
| Emakume izena / Senidea | | | | | | Errep., gorotza / Seguru | | | 2 / Asiako estatua | | |
| | | | | | Likitsa / Arras | | | | | | |
| Azido ezaguna / Ala | | | | Ahoko ehuna / Uribe Kosta | | | | Musika nota / Musika nota | | | Zah., zakur |
| | | | Ipar., maiz / Oxigenoa | | | | Xedera, segada / Kontso-nantea | | | | |
| Guztizkoak | | | | | | | | | | Kontso-nantea | |

* Usurbilgo txirrindularia

## Eusko Tren-en tren ordutegia

| Donostia | Usurbil | Zarautz |
|---|---|---|
| 05.47* | 06.03* | 06.20* |
| 06.17* | 06.33* | 06.50* |
| 06.47* | 07.03* | 07.20* |
| 07.17 | 07.33 | 07.50 |
| 07.47 | 08.03 | 08.20 |
| 08.17* | 08.33* | 08.50* |
| 08.47 | 09.03 | 09.20 |
| **09.52/** | | **10.21/** |
| 10.17 | 10.33 | 10.50 |
| 10.47 | 11.03 | 11.22 |
| 11.51 | 12.05 | 12.20 |
| 12.17* | 12.33* | 12.50* |
| 12.47 | 13.03 | 13.20 |
| 13.17* | 13.33* | 13.50* |
| 13.47 | 14.03 | 14.20 |
| 14.17* | 14.33* | 14.50* |
| 14.47 | 15.03 | 15.20 |
| 15.17* | 15.33* | 15.50* |
| 15.47 | 16.03 | 16.20 |
| 16.17* | 16.33* | 16.50* |
| 16.47 | 17.03 | 17.20 |
| 17.17* | 17.33* | 17.50* |
| 17.47 | 18.03 | 18.20 |
| 18.17* | 18.33* | 18.50* |
| 18.47 | 19.03 | 19.20 |
| 19.17* | 19.33* | 19.50* |
| 19.47 | 20.03 | 20.20 |
| **20.21/** | | **20.48/** |
| 20.47 | 21.03 | 21.20 |
| 21.47 | 22.03 | 22.20 |

* Astegunetan bakarrik / Zerbitzu berria, egunero

| Zarautz | Usurbil | Donostia |
|---|---|---|
| 06.08* | 06.24* | 06.39* |
| 06.38* | 06.54* | 07.09* |
| 07.08* | 07.24* | 07.39* |
| 07.38* | 07.54* | 08.09* |
| 08.08 | 08.24 | 08.39 |
| 08.38* | 08.54* | 09.09* |
| 09.08 | 09.24 | 09.39 |
| 10.05 | 10.24 | 10.39 |
| 11.08 | 11.24 | 11.39 |
| **11.22/** | | **11.47/** |
| 12.08 | 12.24 | 12.39 |
| 12.38* | 12.54* | 13.09* |
| 13.08 | 13.24 | 13.39 |
| 13.38* | 13.54* | 14.09* |
| 14.08 | 14.24 | 14.39 |
| 14.38* | 14.54* | 15.09* |
| 15.08 | 15.24 | 15.39 |
| 15.38* | 15.54* | 16.09* |
| 16.08 | 16.24 | 16.39 |
| 16.38* | 16.54* | 17.09* |
| 17.08 | 17.24 | 17.39 |
| 17.38* | 17.54* | 18.09* |
| 18.08 | 18.24 | 18.39 |
| 18.38* | 18.54* | 19.09* |
| 19.08 | 19.24 | 19.39 |
| 19.38* | 19.54* | 20.09* |
| 20.08 | 20.24 | 20.39 |
| 21.08 | 21.24 | 21.39 |
| **22.07/** | | **22.32/** |
| 22.38 | 22.54 | 23.09 |

* Astegunetan bakarrik / Zerbitzu berria, egunero

## Eguneko goardiako farmaziak

**Urtarrilak 21 ostirala**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Urtarrilak 22, larunbata**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil

**Urtarrilak 23, igandea**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Urtarrilak 24, astelehena**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Urtarrilak 25, asteartea**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Urtarrilak 26, asteazkena**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Urtarrilak 27, osteguna**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Urtarrilak 28 ostirala**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Urtarrilak 29, larunbata**
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Urtarrilak 30, igandea**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Urtarrilak 31, astelehena**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Otsailak 1, asteartea**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Otsailak 2, asteazkena**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Otsailak 3, osteguna**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Otsailak 4 ostirala**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Otsailak 5, larunbata**
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Otsailak 6, igandea**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

*GAUEKO GOARDIAKO FARMAZIAK*
*Urte osoan gaueko goardiako farmazia guztiak Hernanin egingo dira. Maria Jose Chucla, Kardaberaz Kalea 48, Hernani (943 55 17 93).*

2005eko egutegi osoa **noaua.com** helbidean

## Eusko Tren-en autobus ordutegia

| Donostia | Urbil | Usurbil | Zarautz |
|---|---|---|---|
| 07.40 | | 08.05 | 08.25 |
| 08.00 | | 08.25** | |
| 08.00 | 08.25 | 08.35 | 08.55 |
| 08.40 | | 09.05 | 09.25 |
| 09.00 | 09.20 | 09.30 | |
| 09.00 | 09.25 | 09.35 | 09.55 |
| 09.40 | | 10.05 | 10.25 |
| 10.00 | 10.25 | 10.35 | 10.55 |
| 10.40 | | 11.05 | 11.25 |
| 11.00 | 11.25 | 11.35 | 11.55 |
| 11.40 | | 12.05 | 12.25 |
| 12.00 | 12.20 | 12.25** | |
| 12.00 | 12.25 | 12.35 | 12.55 |
| 12.40 | | 13.05 | 13.25 |
| 13.00 | 13.20 | 13.30 | |
| 13.00 | 13.25 | 13.35 | 13.55 # |
| 13.40 | | 14.05 | 14.25 |
| 14.00 | 14.20 | 14.30** | |
| 14.00 | 14.25 | 14.35 | 14.55 |
| 14.40 | | 15.05 | 15.25 |
| 15.00 | 15.20 | 15.30 | |
| 15.00 | 15.25 | 15.35 | 15.55 |
| 15.40 | | 16.05 | 16.25 |
| 16.00 | 16.25 | 16.35 | 16.55 |
| 16.40 | | 17.05 | 17.25 |
| 17.00 | 17.25 | 17.35 | 17.55 |
| 17.40 | | 18.05 | 18.25 |
| 18.00 | 18.20 | 18.30 | |
| 18.00 | 18.25 | 18.35 | 18.55 |
| 18.40 | | 19.05 | 19.25 |
| 19.00 | 19.20 | 19.25** | |
| 19.00 | 19.25 | 19.35 | 19.55 |
| 19.40 | | 20.05 | 20.25 |
| 20.00 | 20.20 | 20.30 | |
| 20.00 | 20.25 | 20.35 | 20.55# |
| 21.00 | 21.20 | 21.25 | 21.45 |
| 21.00 | 21.25 | 21.35 | 21.55 |
| 22.15 | 22.35 | 22.45 | 23.05 |
| 22.00 | 22.25 | 22.35 | 22.55 |
| 22.30 | 22.55 | 23.05 | 23.25 |
| 00:00 | | 00.25 | 00.45 |
| 02:00 | | 02.25 | 02.45 |
| 04.00 | | 04.25 | 04.45 |
| 06.00 | | 06.25 | 06.45 |

**Aiaraino # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiara

| Zarautz | Usurbil | Urbil | Donostia |
|---|---|---|---|
| 06.45 | 07.05 | | 07.30 |
| 06.45 | 07.05 | 07.10 | 07.30 |
| 07.15 | 07.35 | | 08.00 |
| 07.45 | 08.05 | | 08.30 |
| 07.45 | 08.05 | 08.15 | 08.40 |
| 08.15 | 08.35 | | 09.00 |
| 08.45 | 09.05 | | 09.30 |
| 08.45 | 09.05 | 09.15 | 09.40 |
| | 09.30 | 09.35 | 10.00 |
| 09.45 | 10.05 | | 10.30 |
| 09.45** | 10.05 | 10.15 | 10.40 |
| | 10.30 | 10.35 | 11.00 |
| 10.45 | 11.05 | | 11.30 |
| 10.45 | 11.05 | 11.15 | 11.40 |
| 11.45 | 12.05 | | 12.30 |
| 11.45 | 12.05 | 12.15 | 12.40 |
| 12.45 | 13.05 | | 13.30 |
| 12.45 | 13.05 | 13.15 | 13.40 |
| | 13.30 | 13.35 | 13.55* |
| 13.45 | 14.05 | | 14.30 |
| 13.45 | 14.05 | 14.15 | 14.40 |
| | 14.30 | 14.35 | 15.00 |
| 14.45 | 15.05 | | 15.30 |
| 14.45 | 15.05 | 15.15 | 15.40 |
| | 15.30 | 15.35 | 15.55* |
| 15.45 | 16.05 | | 16.30 |
| 15.45 | 16.05 | 16.15 | 16.40 |
| | 16.30 | 16.35 | 17.00 |
| 16.45 | 17.05 | | 17.30 |
| 16.45 | 17.05 | 17.15 | 17.40 |
| 17.45 | 18.05 | | 18.30 |
| 17.45 | 18.05 | 18.15 | 18.40 |
| 18.45 | 19.05 | | 19.30 |
| 18.45 | 19.05 | 19.15 | 19.40 |
| | 19.30 | 19.35 | 20.00 |
| 19.45 | 20.05 | | 20.30 |
| 19.45 | 20.05 | 20.15 | 20.40 |
| 20.45 | 21.05 | 21.15 | 21.40 |
| 21.15 | 21.35 | 21.40 | 22.00 |
| 21.45 | 22.05 | 22.15 | 22.40 |
| 23.15 | 23.35 | | 00.00 |
| 01.15 | 01.35 | | 02.00 |
| 03.15 | 03.35 | | 04.00 |
| 05.15 | 05.35 | | 06.00 |

*Aiatik dator
Asteburutan
Soilik larunbata gauez
Larunbat lanegunetan

## Zubieta-Donostia TST autobusak

**ASTEGUNETAN**
**Zubieta-Donostia**
7:55*/ 9:30(T)/ 13:15(T)/ 14:35*(T)/ 19:15(T)
**Donostia-Zubieta**
(Gipuzkoa plazatik)
7:15* /9:00/ 12:45(T)/ 13:45*/18:45

**LARUNBATETAN**
**Zubieta-Donostia**
8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)
**Donostia-Zubieta**
(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

**JAI EGUNETAN**
**Zubieta-Donostia**
11:25(T)/ 13:30(T)/ 15,30(T)/ 21:35 (T)
**Donostia-Zubieta**
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T)/ 13:00(T)/ 15:00(T)/ 21:00 (T)

* Eskola egunetan
T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

## Datorren NOAUA!

**Urtarrila 2005**

| As. | Ar. | Az. | Os. | Ost. | La. | Ig. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |

Hurrengo alea

## Bai esan?

- **Udala** ........ 37 19 51
- **Udaltzaingoa** ........ 36 11 12
- **Obrak eta Zerbitzuak** ........ 37 01 48
- **Anbulategia** ........ 36 20 13
- **Udarregi ikastola** ........ 36 12 16
- **Udarregi (Agerialde)** ........ 36 38 95
- **Oiardo kiroldegia** ........ 37 24 98
- **Zumarte** ........ 37 15 94
- **Etumeta** ........ 37 20 01
- **Taxi geltokia** ........ 36 21 78
- **D.Y.A.** ........ 46 46 22
- **Ertzantza** ........ 112
- **Suhiltzaileak** ........ 112
- **Larrialdiak** ........ 112
- **Anbulantziak** ........ 112
- **Gure Pakea** ........ 37 32 28
- **Gure Elkartea** ........ 37 17 51
- **Arrate Egoitza** ........ 36 63 40
- **Eusko Tren** ........ 47 09 76
- **Noaua! aldizkaria** ........ 36 03 21
- **Bake epaitegia** ........ 37 23 36
- **Oa farmazia** ........ 37 60 76
- **Iturralde farmazia** ........ 36 33 95
- **Zubietako Batzarra** ........ 37 20 77
- **Argindarra (Iberduero)**. 47 09 76

## Oharrak

### Etxebizitza

- Estudio bat edo apartamendu bat alokatuko nuke. Tf: 677 082 305.
- Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua erosiko nuke. 943 364 469.
-Alokairuan konpartitzeko pisua edo gela hartu nahi dut. 647 97 38 44 (Lourdes).
-Pisu bat alokatuko nuke. Premiazkoa da. 661267503.
-Usurbil edo inguruetan pisua errentan hartuko genuke. Tf: 645722874.

### Salerosketak / garajeak

-Baserriko babarrunak saltzen dira. Kiloa 10 euro. 600901150.
- Garaje bat daukat alokairuan jartzeko Kale Nagusian (Bizkarreko etxeetan) 240eurotan. 100m2takoa da eta kotxea erraz sartzen da. 943458284.
- Kotxe bat salgai daukagu 600 eurotan. Interesatuak edozein ordutan deitu 635729637 telefonora.
- Aparkalekuak dauzkat salgai prezio oso onean Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3 zbkan. Interesatuak deitu 607905859 (Imanol).
- Garaje itxi bat saltzen da Munalurra kalean 15.025 eurotan (2.500.000 pta). Interesatuak deitu: 650938489.
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 617 707 024 (Jon).

### Lanpostuak

#### Lan-eskaerak

- Neska bat eskaintzen da umeak, etxeko lanak edo pertsona helduak zaintzeko: 619 844 556.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbaitetan. 652 757 495.
- Neska euskaldun bat behar dugu, arratsaldez, umeak Ikastolatik jaso eta 3-4 orduz. Gida baimena izatea baloratuko da. 639 670 999 / 667 592 679.
- Portalak eta eskilerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. Interesatuak deitu 690 784 113 telefono zenbakira.

#### Lan-eskaintzak

- Emakume bat behar dugu etxeko lanetarako. 650947142. (Gauez) 943360096.
- Usurbilen taberna bat traspasatzen da. 620 259 672.
- Pertsona bat behar da 6 urteko haur bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko (plantxa, jana). Astelehenetik ostiralera 16:30tik 19:30ra. 686932720.

### Bestelakoak / Galdutakoak

- Ekonomika sukalde bat saltzen da (labea ere badu). 6 urte ditu, ondo zaindua. Prezioa negoziatuko da. 617242660 / 943361751 (Nerea).
- Bideokamara bat saltzen dut, Canon XL1 semiprofesionala, bateria eta tripodea barne. Gutxi erabilia berria dago. 943376902 - 665749615 gauez.
- Kanping-karroa salgai, aluminiozko panelarekin. Karabana bihurtzen da. 943 55 18 32.
- Poltsa bat galdu dut herrian. Topatu baduzu deitu 637 046 389 telefonora.
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615755762.
- Astean zehar eski-begirale izateko jendea behar du Ikastolen Elkarteak. 943444702.
- Vespa Iris 200 motorra salgai. SS-Al matrikula. Salneurria 600 euro. 656721158.

## Txerrimunik ordainetan

### Jaiotzak

- **Unax** eta **Enara Arrospide Rueda**
2005eko urtarrilaren 1ean.
- **Alex Fernandorena Yurrita**
2005eko urtarrilaren 12an.
- **Libe Olasagasti Britt**
2005eko urtarrilaren 13an.

### Heriotzak

- **Ignazia Etxeberria Mendizabal**
2005eko urtarrilaren 8an. Txokoalde.

*Iturria: Bake Epaitegia*

**Zorionak Luisa Sambade!**
Pasa den asteazkenean izan zen zure urtebetetzea, gogoratu gara eta hemen gure agurrik beroena. Muxu handi bat etxekoen partez eta jarraitu horrela.



**Zorionak Iñaki!**
Urtarrilaren 23an bi urte egingo ditu etxeko txikiak. Zorionak eta muxu haundi bat etxekoen partez.



**Zorionak Enara!**
Urtarrilaren 18an bost urte bete zituen gure Enarak. Muxu asko etxekoen partez!



**Zorionak bikote!**
Urtarrilaren 17an bete zenuten zuen lehen urteurrena. Horrela segi txintxo txintxo, eh! Muxu asko famili guztiaren partez.



ARRAINDEGIA
PELLO

Km
MASAJE LEKUA
Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA
TEL. 36 61 97

Aristitxo, 8-5.a 20170 USURBIL
MOBILA: 629 46 09 66

MIST

Telf: 943 36 61 21
Alperroburu, 1

TX
Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

## Agenda !

**Urtarrilak 22, larunbata**

- UHLk deituta, datorren urtarrilaren 22an, larunbata, EHNA egiteko aukera izango da 11:00etik 13:00era udaletxe aurrean. EHNA egin ahal izateko eraman beharrezkoak: 3 argazki, errolda agiria (18 beherakoek, familia liburuaren kopia bat), 15 euro.

**Urtarrilak 24, astelehena**

- Odol emaileen hitzordua. Herriko anbulategian, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara.

**Urtarrilak 30, igandea**

- Erroizpe Elkarteko bazkideentzako bilera deialdia. Erroizpe Elkartean, 11:00etan hamaiketakoa eta ondoren bilera.

## KzGunea

**IKASTAROAK**

**OINARRIZKO INTERNET (20 ordu)**

1. Otsailak 14-25, arratsaldez, 16:00-18:00. (Euskaraz).

**NAGUSIWEB (10 ordu)**

1. Urtarrilak 31-otsailak 4, arratsaldez, 16:00-18:00. (Euskeraz).

**AZTERKETAK**

**1. IT Txartela.** Otsailak 28 astelehena, goizez, 11:00-13:00.

## Literaturaren txokoa !

### "Belarraren ahoa"



Demagun Hitler ez zela Berlinen hil 1945ean. Demagun ez zuela gerra galdu eta Europa osoaz jabetu zela, Britainia Handia barne. Demagun itsasoz doala Manhattanen jabe egitera. Itsasontziko sotoan preso, Charles Chaplin komediantea.

Demagun, 1886an, Frantziatik New Yorkera Askatasun Anderea puskatan daramaten itsasontziaren soto haietan Olivier Legrand izeneko polizoia doala Ameriketara.

Askatasun pertsonalaren alegoria ederra egiten du Harkaitz Canok bi historia horiek bat egiten duten unetik aurrera, kontakizun bizkor, samur, poetiko honetan.

**BELARRAREN AHOA**
Harkaitz Cano
Narrazioa
2004
104 orrialde
Formatoa: 14 x 20,50 cm.

## Egin kontu !

### Herri antzerkirako aktoreak behar dira

Ekaina aldera antzerki baten antzezpena egiteko asmoa dago. Gidoia Ibai Esoain, Ixabel Agirresarobe eta Iñaki Agirresarobek idatzi dute eta berau aurrera emateko herriko jendearen beharra aurkitzen dute. Helburua herria girotzeaz gain, ahal den partaidetzarik zabalena suertatzea da: helduak, haurrak, gazteak, ezkonduak, ezkongabeak, parranderoak, langileak, dendariak, harakinak, ikasleak, irakasleak... Guztira, 50 pertsonen aurreikuspena egina dago. Beraz, gonbitea urtarrilaren 24rako luzatzen dizuegu arratsaldeko 19:30etan Udarregi ikastolan. Azaldu beldurrik gabe.

Iturgintza - Gasa - Berokuntza
J. r z
Bizkarra 1, 1.esk. 37 29 37 - 659 602789

TABERNA-JATETXEA
NTXET

SOLOZABAL AUTOESKOLA

-Klase teoriko zein praktikoak, norberak nahi dituenean
-Klase teorikoak ikusentzunezko abantailak erabilita
-Merkantziak eta bidaiarien garraiatzeko nazio arteko agentzia zihurta agiria lortzeko ikastaroak
-Garraio arriskutsuen ikastaroak
-Gidatzeko karnet guztiak
Kale Nagusia Telf.: 943 376 936 Usurbil 20170




# usk r z r ,

Eusk k Kutx n usk r z r t m t z st z n z r tzu.
Gur n t k m u .

Zur kn lk r/ n. n

# EGIN TXOTX!
# SAGARDOTEGI GARAIAN






Txotxetik irten zera
kristal fiñ garbira,
saltatu dezu illun
betikan argira;
atoz ederra, atoz,
gauzkatzu begira,
eragiteko baso
zaudenari jira.

*Ramon Artola. "Sagardoaren grazia eta beste bertso asko"*





